

## ONCE-K ETA FEKOOR-EK ITSUEN ETA BESTELAKO GORPUTZ-DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONEN IRISGARRITASUN-ERRONKAK AZALDUKO DITUZTE BILBON

**Bilbon, 2019ko irailaren 19an.** Álvaro Pérez Alonso Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko alboko zinegotzi ordezkaria Areatzako aterpeetan egon da gaur, ONCE eta FEKOOR elkarteek egindako jardueretan parte hartzeko. Jarduera horien helburua da itsuen eta bestelako gorputz-desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasun-erronkei buruzko sentsibilitatea sortzea herritarren artean. Deialdiaren testuingurua Bilboko 2019ko Bilboko MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA da. Aste hau irailaren 16tik 22ra ospatuko da, “Oinez nahiz bizikletaz, beti seguru” esloganarekin.

Gure hirian biztanleria zahartzen ari da, eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak Bilbo herritar guztien mugikortasun segurua hobetzen duen hiria izatea nahi du, baita ingurune latz batean mugitzeko zailtasun gehien dituzten pertsonentzat ere, ezbeharririk ez dadin egon eta pertsona horien autonomia eta inklusioa areagotzeko. Horrela, kaleak seguruak diren heinean, hiria gero eta inklusiboagoa izango da eta bertako espazio publikoa denontzat irisgarria izango da, baita ume txikientzat, beraien gurasoentzat, zaharrentzat eta mugikortasun murrizta duten pertsonentzat ere.

Parte hartuko duten elkarteek gaur aipatu dituzten jardueren artean, ONCEk “zentzumenen tunela” ekintza antolatu du. Bertan, parte hartu duten pertsonak bertatik bertara ikasi dute nola zorrozten diren gainerako zentzumenak baldin eta begiak estaltzen baditugu. “Zentzumenen tunelak” sentsazioak antzematera gonbidatzen gaitu, hala nola beroa eta hotza, edo entzumena baliatzera, itsuturik ibilbide bat eginez, antolatzaileek gidatuta. Helburua da egunero geure bizitzan jasotzen ditugu estimuluez jabetzea, eta gure gogoak estimulu horiek nola antzematen dituen ikasi eta harritzea, geure irudimena askatuz.


Bestalde, FEKOOR Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailearen jardura ginkana bat izan da, “Irisgarritasunaren erronka” izenekoa. Helburua: herritarrak sentsibilizatzea eta irisgarritasun unibertsalaren aldeko aktibismo sozialeko sarea ehuntzea. Ibilbide honek zenbait mugikortasun-egoera simulatzen ditu, eta herritarrei eskaintzen zaie, enpatia sortzeko eta aldaketa sozialaren aldeko kanpainarekin bat egiteko, bizimodu independentea, irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna aldarrikatuz.



#SEMBilbao2019 | @SEM\_Bilbao

**MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA**  
**SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD**

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA**

FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

*Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea*  
*Camina y pedalea con seguridad*

## LA ONCE Y FEKOOR ESCENIFICAN EN BILBAO LOS RETOS DE ACCESIBILIDAD PARA PERSONAS INIDENTES Y CON OTRAS DISCAPACIDADES FÍSICAS

**Bilbao, 19 septiembre de 2019.** Álvaro Pérez Alonso, Concejal Delegado adjunto del Área de Movilidad y Sostenibilidad del Ayuntamiento de Bilbao, ha participado hoy en los tinglados del Arenal en las actividades emprendidas por las organizaciones ONCE y FEKOOR para sensibilizar a la ciudadanía sobre los retos de accesibilidad que afrontan las personas invidentes y con otras discapacidades físicas. La convocatoria se enmarca en la celebración de la SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD – SEM Bilbao 2019, que tiene lugar entre los días 16 y 22 de septiembre, con el eslogan “Camina y pedalea con seguridad”.

En una ciudad en la que la población envejece, el Área de Movilidad y Sostenibilidad se prepara para convertir a Bilbao en una ciudad que mejora la movilidad segura para toda la ciudadanía, incluidas las personas con mayores dificultades para movilizarse en un entorno hostil, con el fin de reducir a cero la siniestralidad, y aumentar la autonomía e inclusión de esas personas. De esta manera, a medida que las calles se vuelven seguras, la ciudad se volverá más inclusivas y ofrecerá más espacio público accesible para todos, incluyendo niñas y niños pequeños y sus madres y padres, así como personas ancianas o con movilidad reducida.

Entre las actividades escenificadas hoy por las asociaciones participantes, la ONCE ha organizado la acción “Túnel Sensitivo”, en la que las personas asistentes pudieron experimentar en su propia piel cómo se agudizan el resto de los sentidos cuando al portar un antifaz se carece de la visión. El “Túnel Sensitivo” invita a percibir sensaciones como el calor o el frío, olfativas o táctiles, además de las auditivas, a través de un recorrido a ciegas, conducidos por técnicos de la organización. El objetivo no es otro que la toma de conciencia de los distintos estímulos que a diario nos acompañan en nuestra vida, pero dejándose asombrar por cómo los percibe nuestra mente, dando rienda suelta a nuestra imaginación.


Por su parte, la actividad de FEKOOR, Federación Coordinadora de Personas Con Discapacidad Física, ha consistido en la Ginkana “El reto de accesibilidad/Irisgarritasun erronka”, que tiene como objeto sensibilizar a la ciudadanía y tejer una red de activismo social por la accesibilidad universal. Se trata de un recorrido que simula diferentes tramos con las situaciones de movilidad al que invitan a



#SEMBilbao2019 | @SEM\_Bilbao

**MUGIKORTASUNARENASTEEUROPARRA**  
**SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD**

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA**

FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

*Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea*  
*Camina y pedalea con seguridad*


recorrer a la ciudadanía para que empatee y se sume a la campaña por el cambio social por la vida independiente, la accesibilidad universal y la igualdad de oportunidades.



#SEMBilbao2019 | @SEM\_Bilbao

**MUGIKORTASUNARENASTEEUROPARRA**  
**SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD**

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA**

FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

*Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea*  
*Camina y pedalea con seguridad*



# Bilbao

UDALA  
AYUNTAMIENTO

BABESLEAK | PATROCINADORES



LAGUNTZAILEAK | COLABORADORES



KOMUNIKABIDEAK | MEDIOS DE COMUNICACIÓN

